



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Martxoaren 17ko 35/1998 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 30eko 124/1997 FORU DEKRETUA partzialki aldarazi duena.

## **Gizartekintza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 35/98 FORU DEKRETUA, martxoaren 17koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoentzako «Adineko 98» egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezarri eta aipatu egitarauaren jardueretarako ekonomi laguntzen ematea arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko 124/1997 foru dekretua zati batez aldarazten duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko 124/1997 Foru Dekretuaren bitartez, adinekoei zuzenduriko Adineko 98 egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezartzen dira. Dekretu horretan, halaber, Adineko 98 bidai kanpainan parte hartu ahal izateko, onuradunek bete behar dituzten baldintzak arautzen dira.

Aipaturiko Dekretuan arautu gabeko beste zenbait onuradun ere egitarauan sartzeko gizarte-eskari garrantzitsua agertu denez, bidezkotzat jotzen da aurrez aipaturiko atalak aldaraztea.

Horren ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17 eta 64.3 artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizartekintzako saiburu den foru diputatuak proposatu eta Aldundiak 1998ko martxoaren 17ko batzarrean eztabaidatu eta onetsi ostean, hauxe

## **XEDATU DUT:**

### **1. artikulua**

Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoei zuzenduriko Adineko 98 egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezarri eta egitarau horren jardueretarako ekonomi laguntzen ematea arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko 124/1997 Foru Dekretuko 3. artikulua, 1. atala, aldaraztea; honenbestez, honela idatzita geratuko dela:

«1. Foru Dekretu honetan xedatzen denaren arabera aukeratuak izango diren onuradunek eta beraien lagunkideek, ekonomi laguntzak eskatu zein eskatu ez, jarraian adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte Adineko 98 egitarauaren jardueretan parte hartzeko, hots:

a) 60 urte beteak izatea edo adin hau 1998. urtean zehar betetzea.



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Martxoaren 17ko 35/1998 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 30eko 124/1997 FORU DEKRETUA partzialki aldarazi duena.

- b) Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan edukitzea.
- c) Establezimenduetako ohiko elkarbizitza asalda dezakeeen buru-nahaste larririk nahiz kutsabidezko gaixotasunik ez izatea.

d) Norbere buruaz baliatzea.

e) Salbuespen gisa, euren gurasoekin bizi eta %50eko edo hortik gorako minusbaliotasuna duten seme-alabek ere parte ahal izango dute Adineko 98 kanpainan, beti ere, gurasoek kanpaina honetan parte hartu ahal izateko baldintzak betetzen dituztenean. Halako kasuetan esleituko den dirulaguntzak, berriz, berarekin bizi diren gurasoei legokiekeen zenbatekoa joko du.»

## 2. artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoei zuzenduriko Adineko 98 egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezarri eta egitarau horren jardueretarako ekonomi laguntzen ematea arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko 124/1997 Foru Dekretuko 5. artikulua, 4. atala, aldaraztea; honenbestez, honela idatzita geratuko dela:

«4. Aurreko 3 puntuan aipatzen diren urteko sarreraren kalkulurako, eskatzailearen eta lagunkidearen 1996ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (P.F.E.Z.) oinarri ezargarrria eta eskatzaileak eta lagunkideak 1996an jasotako pentsioen urteko zenbateko osoa hartuko dira kontuan, bi kopuruotako handiena joko da Adineko 98 egitarauan zenbatu beharreko sarreratzat.»

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Bakarra**

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, emana, 1998ko martxoaren 17an

Gizartekintza Saileko foru diputatua,

INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA

La Diputada Foral del Departamento de Acción Social,

(I-532)

JOSU BERGARA ETXEBARRIA